Goi Eskola Politeknikoa

Albisteak

MUko ikertzaileak Zurich-eko ospe handiko ETH institutua bisitatu dute.

2010/10/18

Lankidetzarako bide berriak lantzeko helburuarekin, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Arruti eta Mendikute doktoreak, Zurich-eko Institutu Politekniko Federaleko (ETHZ) Andreas Burg irakasleak gidatzen duen ikertzaile taldearekin egon ziren. ETHZra egindako bisitan, Sistema Integratuen Institutuko Zirkuitu eta Seinalea Prozesatzeko Sistemen arloa ikusteko aukera ere izan zuten. Mendikute Doktoreak erabiltzaile anitzeko haririk gabeko komunikazioen inguruko hitzaldi bat eman zuen: “Design and FPGA Implementation of Multiuser Vector Precoders”.